

aek
23.korrika

ALBISTEAK

2023 (AZAROA / ABENDUA)



A2
MAILA

Badator 23. KORRIKA!

Harrotasunez! Kanean da KORRIKA-KANTA!

aek
23.korrika

**HARRO
HERRI**



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Irudiak (AEK): 23. KORRIKAren aurkezpena Donostiako San Telmo Museoa



Elkarrizketa Ane Elordi Alburquerque KORRIKA arduradunari¹

“Badator 23. KORRIKA!”. 2024ko martxoaren 14tik 24ra KORRIKA, euskararen aldeko² lasterketa erraldoia³, Euskal Herrian ibiliko da berriro, eta gure herriak kolorez, musikaz, ilusioz eta euskaraz jantziko ditu. Lasterketaren aurkezpena egiteko, AEK-k Donostiako San Telmo Museoa bildu ditu kazetariak. Bertan, Ane Elordi KORRIKA arduradunarekin hitz egin dugu.

Zer da KORRIKA? Nola azaldu ezagutzen ez duen bati?

KORRIKA euskararen aldeko lasterketa erraldoia da, Euskal Herriko ekimenik⁴ jendetsuena eta zirrargarriena⁵. 11 egunez, gau eta egun, 2.500 kilometro inguru egingo ditugu Euskal Herriko bazter guztietatik, eta mezu⁶ sekretua gordetzen duen lekukoa⁷ eskuz esku⁸ ibiliko da.

Zein da KORRIKAren helburua⁹?

Bi dira helburuak: euskara bultzatzea¹⁰ eta euskaltegiak ekonomikoki laguntzea.

Eta zein da KORRIKAren leloa¹¹?

“Harro¹² Herri” da edizio honen leloa. Konplexuak gainerik kentzeko ordua da. Harro gaude garenaz, eta euskaraz bete nahi ditugu etxeak zein kaleak!

Oraingoa¹³ 23. edizioa da. Askotxo da hori...

Bai, benetan! Esaten da hiru euskal herritarretik batek parte hartu duela, inoiz, KORRIKA. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ilusioa berreskuratzea¹⁴: klean, sareetan, ikastetxeetan, diasporan eta abarretan.

Horri lotuta, KORRIKA “mundiala” dela ere¹⁵ esan daiteke, ezta?

Bai, hala da! Mundu osoko 60 bat¹⁶ tokitako hiri nagusietan ere ibiliko da 23. KORRIKA: La Platan, San Frantziskon, New Yorken, Parisen, Berlinen, Bartzelonan, Bruselan, Shanghain, Tokion...

KORRIKAren “ahizpak” ere hor ditugu...

Bai, horixe da. Munduko hizkuntza gutxituen alde egiten dira horiek. Hego Amerikan, maputxeen hizkuntzaren aldeko lasterketa (Lefkantun), Britainian (Ar Redadeg), Okzitanian (La Passem), Alsazian (Sprochrenner), Irlandan (Rith), Galesen (Ras yr Iaith), Katalunian (Correllengua) eta Galizian (Correlingua).

Nondik nora joango da 23. KORRIKA?

Irundik Baionara joango da, martxoaren 14tik 24ra. Baina, eguneroko ibilbide zehatza¹⁷ ezagutzeko, apur bat itxaron behako duzue.

Ados, zain egongo gara! Eta, zer esan dezakezue KORRIKA alaituko duen kantaz?

Esan baino, onena izango da zuek entzutea! Espero dugu zuen gustukoa izatea!



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



Ane Elordi, KORRIKA arduraduna (Zornotza, 1991)



Hiztegia

- ¹ Arduradun: *responsable*
- ² -ren alde: *a/en favor de...; en faveur de...*
- ³ Lasterketa erraldoi: *carrera gigante; course géante*
- ⁴ Ekimen: *iniciativa; initiative*
- ⁵ Zirrargarri: *emocionante; impressionnant,-e*
- ⁶ Mezu: *message; message*
- ⁷ Lekukoa: *testigo; témoin*
- ⁸ Eskuz esku: *de mano en mano; de main en main*
- ⁹ Helburua: *objetivo; objectif, but*
- ¹⁰ Bultzatu: *impulsar; promouvoir, soutenir*
- ¹¹ Leloa: *eslogan; slogan*
- ¹² Harro: *orgullosa/a; fier, fière*
- ¹³ Oraingoa: *la de esta vez; cette fois*
- ¹⁴ Berreskuratu: *recuperar; récupérer*
- ¹⁵ Ere: *también; aussi*
- ¹⁶ 60 bat: *unos 60; environ 60*
- ¹⁷ Zehatza: *concreto/a; exact,-e, précis*
- ¹⁸ Omendu: *homenajear; rendre hommage*
- ¹⁹ "Baxoa": *Frantziar Estatuko azterketa bat da*
- ²⁰ Eredua: *ejemplo; exemple*
- ²¹ Batzorde: *comité; comité*
- ²² Salgai: *en venta; en vente*
- ²³ Elkar ikusiko dugu: *nos veremos; nous nous verrons*

Nor omenduko¹⁸ du 23. edizioak?

"Azterketak Euskaraz" kolektiboa omenduko dugu oraingoan. Zergatik beraiek? Bada, baxoa¹⁹ euskaraz egin ahal izateko borrokan ari diren gazteak direlako. Ipar Euskal Herrian mugimendu handia dago euskararen alde, ilusio eta indar handiz ari dira, eta haien eredia²⁰ Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu.

Nola hartzen da parte KORRIKAN?

Modu asko daude: korrika eginez, KORRIKA kulturean parte hartuz, KORRIKA batzordeetan²¹ lan eginez eta KORRIKA LAGUNTZAILEA izanez. Horixe da KORRIKA ekonomikoki laguntzeko modu onena. KORRIKA materiala ere laster egongo da salgai²²: arropa, eta abar.

Tira, bada, KORRIKA on!

Horixe! Errepidean ikusiko dugu elkar²³!

► Azpimarratu forma zuzenak, eta gero erantzun: egia ala gezurra dira?

Subraya las formas correctas, y después responde: ¿son verdaderas o falsas?
Soulignez les formes correctes, puis répondez: sont-elles vraies ou fausses?



E G

- 1. KORRIKA euskara **bultzatzen / bultzatzeko / bultzatzera** egiten da.
- 2. KORRIKA **ikastola / ikastolak / ikastolek** antolatzen dute.
- 3. KORRIKA ez **da / du / dio** Nafarroatik pasatzen.
- 4. Txanda-aldaketan korrikalariak bostekoa ematen **da / dute / diote** elkarri.
- 5. Hamaika egunean KORRIKA **inoiz ez gelditzen da / ez da inoiz gelditzen / ez gelditzen da inoiz**.
- 6. Aurtengo KORRIKAren leloa "Harro Herri" **da / du / zaio**.
- 7. **KORRIKA / KORRIKAK / KORRIKek** 60 bat "ahizpa" ditu Euskal Herritik kanpo.
- 8. Aurtengo KORRIKA **martxoak 14 / martxoaren 14n / martxoaren 14an** hasiko da.
- 9. Aurtengo KORRIKA Ipar Euskal Herrian **hasi / hasten / hasiko** da.
- 10. Aurtengo **KORRIKAK / KORRIKA** euskara-irakasleak omenduko ditu.
- 11. KORRIKAN parte **hartzeko / hartzea / hartzera** modu asko dago.
- 12. Diruz laguntzeko modu onena da KORRIKA LAGUNTZAILEA **izatea / izaten / izan**.

Kalean da 23. KORRIKA-kanta: *Harro herri*

► Hemen behean, kantan parte hartu duten artista batzuk ezagutuko dituzu:

Mursego (Maite Arroita Jauregi Aranburu; Eibar, 1977)

Folk- eta pop-abelaria da, eta 23. KORRIKA-.... (1) konpositore eta zuzendari¹ artistikoa izan da.

Hainbat² talde eta bakarlarirekin³ aritu ondoren (Anari, Lisabö, Xabier Montoia, Ama Say...), 2009an bakarkako lehenengo diskoa kaleratu⁴ (2). Bere diskoetan ahotsa⁵, txeloa, pianoa, ukelelea, autoharpa, xilofonoa, stylophonea, melodikoa, txirula, kalinba, erreklamuak eta perkusio txikia jotzen⁶ (3); musikari osoa⁷ da! Beste talde eta abeslari (4) ere⁸ kolaboratzen du.

.... (5) soinu-bandak ere egiten ditu; ospetsuena⁹ "Akelarre" filmerako soinu-banda izan zen.



Irudia (AEK): kantaren aurkezpena (Mursegoren, ezkerretik bigarrena)

2021ean jatorrizko musika (6) Goya saria irabazi¹⁰ zuen film horretan egindako lanagatik, Arantzazu Callejarekin batera¹¹.

Kau Kori Kura (Mikel Aizpurua; Ordizia, 2015)

Pop surrealista egiten du, Ritxar Gomezekin batera.

2015ean (7) zen kantu bereziak¹² YouTubera igotzen, eta, dagoeneko¹³ hainbat disko kaleratu ditu. Abestien (8) surrealistikak dira, hona hemen¹⁴ abesti horien izenburu¹⁵ batzuk: *Errauskailua Txillidalekun,*

Atez-ahate, Barbie ETBn (eta non dago Ken?), Atun burusoil, Pollo-e...

IbonRG (Ibon Rodríguez García; Sestao, 1978)

Musikari eta kultura-eragile¹⁶ euskalduna da.

.... (9) hainbat musika-tresna jotzen ditu. Bakarkako saioetan¹⁷ inprobisatu egiten du: ahotsaz esperimentazioak egiten ditu, pianoa lagun. Disko-ekoizle¹⁸ lanak ere egiten (10).

Iturria: eu.wikipedia (moldatua)

Hiztegitxoa:

¹ Zuzendari: *director/a; directeur, directrice*

² Hainbat: *muchos/as; beaucoup*

³ Bakarlarari: *solitario/a; soliste*

⁴ Kaleratu: *publicar; publier*

⁵ Ahots: *voz; voix*

⁶ Jo: *tocar; jouer*

⁷ Osoa: *completo/a; intègre*

⁸ Ere: *también; aussi*

⁹ Ospetsu: *famoso/a; fameux*

¹⁰ Irabazi: *ganar; gagner*

¹¹ ...-rekin batera: *junto a...; avec...*

¹² Berezi: *especial; particulier*

¹³ Dagoeneko: *ya; déjà*

¹⁴ Hona hemen: *he aquí; voici*

¹⁵ Izenburu: *título; titre*

¹⁶ Kultura-eragile: *activista cultural; promoteur culturel*

¹⁷ Saio: *sesión; prestation*

¹⁸ Ekoizle: *productor/a; producteur*

► Azpimarratu forma zuzenak:



1. kantako / kantaren / kanta
2. zun / zuen / zion
3. da / du / ditu
4. batzugin / batzuekin / batzuk
5. Filmetarako / Filmeko / Filmaren
6. onagoaren / onenaren / hobeagoaren
7. hasi / hasten / hasiko
8. hitza / hitzak / hitzek
9. Ibon / Ibonak / Ibonek
10. du / da / ditu

Harro herri (kanta)

Harro¹ herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Bagara!

Harro herri korrika
Harro herri korrika
Harro herri korrika
Plazara!

Harro herri
 Hona gu euskaldunak
 Euskararen lagunak
 Hats eta izerdi

Herri harro
 Sarean (e)ta kalean
 Bihotza pil-pilean
 Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Mingainaz mingaina²
Mintzairaz mintzaira³
 Lurrarekin batera⁴
 Jira eta bira⁵

Ku kukulumuxu
Ko-ko kokoriko⁶
 Euskararen sarea⁷
 Ez da eroriko⁸

Mingainaz mingaina
Mintzairaz mintzaira
 Hizkuntzak hiztunekin⁹
 Aberasten¹⁰ dira

Ku kukulumuxu
Ko-ko kokoriko
 Algara batean¹¹
 Edo afoniko

Harro herri korrika...
(errepika)

Ahoa bizi-bizi
 Prest belarriak
 Eskuz esku heldurik
 Lehertu eztarriak

Argazki bat ipini
 lasterka egina
 Bihotz, muxu, irrintzi
 Nik bai eragina!

Mingainaz mingaina...
Ku kukulumuxu...
Mingainaz mingaina...
Ku kukulumuxu...
(errepika)

Onlineko txatean
 Ez zirri ez mirri
 Gorputzen epelean
 Ikimilikilkirri

Esku bat nirea
 Bestea zurea
 Eman bostekoa
 Izan dadin gurea

Ikasten bazabiltza
 Egin gurekin
 Elkar ulertu arte
 Ekin (e)ta ekin

Hizkuntzak ikastera
 Bagoaz kanpora
 Zergatik ez herrian
 Euskara ahora

Harro herri korrika...
(errepika bi aldiz)

Ez badigute ematen
 arrazoia guri,
 Su emango diogu
 haien legeari

ERRONKA: baietz errepikak buruz ikasi!



FITXA TEKNIKOA:

Zuzendari artistikoa eta musikaria:
 Mursego (Maite Arroitauregi Aranburu).

Parte hartu duten talde eta musikariak:
 Ibon Rg, Ibil Bedi, Kau Kori Kura, Aida Torres,
 Marié Bidart, Asier Ituarte, Garazi Zabaleta,
 Urretabizkaia Txaranga

Letra: Amaia Astobiza

Grabazioak: Oihan Lizaso (Noisestudioa)

Gustatu zaizu kanta?
Eta bideoklipa?



- Bai, (izugarri) gustatu zait.
- Bai, baina...
- Ez, ez zait gehiegi gustatu.
- Ez dakit zer esan.
- Nire ustez...

Hiztegia:

- ¹ Harro: orgulloso/a; fier, fière
- ² Mingainaz mingaina: de lengua en lengua; d'une langue à l'autre
- ³ Mintzairaz mintzaira: de lenguaje en lenguaje; d'un langage à l'autre
- ⁴ Lurrarekin batera: junto a la Tierra; avec la Terre
- ⁵ Jira eta bira: dando vueltas; en tournant
- ⁶ Kukulumuxu, kokoriko (sinonimoak dira): en cuclillas; accroupi,-e
- ⁷ Euskararen sarea: la red del euskara; le réseau de l'euskara
- ⁸ Erori: caer; tomber
- ⁹ Hiztun: hablante; locuteur
- ¹⁰ Aberastu: enriquecer; s'enrichir
- ¹¹ Algara batean: riendo a carcajadas; en riant aux éclats



1. JARDUERA: BADATOR 23. KORRIKA!

- ▶ KORRIKAz zer dakiten galdetuko dugu.
- ▶ Bideoa¹ ikusi, eta irudien laguntzaz, KORRIKA zer den ez dakitenei oinarrizko azalpenak eman eta lehen albistea aurkeztuko dugu.
- ▶ Bakarka, elkarrizketa irakurri eta ariketa egingo dute (2.-3. or.).
- ▶ Ondoko ikasleekin egindakoa alderatuko dute, eta elkarri zalantzak argitzen saiatuko dira.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

Erantzun zuzenak (azpimarratuta):

1. KORRIKA euskara **bultzatzeko** egiten da. EGIA
2. KORRIKA **ikastolek** antolatzen dute. GEZURRA (AEK-k antolatzen du)
3. KORRIKA ez **da** Nafarroatik pasatzen. GEZURRA (Euskal Herri osotik pasatzen da: Gipuzkoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa)
4. Txanda-aldaketan korrikalariek bostekoa ematen **diote** elkarri. GEZURRA (Ilekukoa ematen diote elkarri)
5. Hamaika egunean KORRIKA **ez da inoiz gelditzen**. EGIA
6. Aurtengo KORRIKAren leloa "Harro Herri" **da**. EGIA
7. **KORRIKAK** 60 bat "ahizpa" ditu Euskal Herritik kanpo. GEZURRA (zortzi ditu)
8. Aurtengo KORRIKA **martxoaren 14an** hasiko da. EGIA
9. Aurtengo KORRIKA Ipar Euskal Herrian **hasiko** da. GEZURRA (han amaituko da, Baionan)
10. Aurtengo **KORRIKAK** euskara-irakasleak omenduko ditu. GEZURRA ("baxoa" euskaraz egin ahal izateko borrokan ari diren Ipar Euskal Herriko ikasleak omenduko ditu)
11. KORRIKAn parte **hartzeko** modu asko dago. EGIA
12. Diruz laguntzeko modu onena da KORRIKA LAGUNTZAILEA **izatea**. EGIA

- ▶ **AEK zer den** azaltzeko une ona izan liteke (batez ere, KORRIKA ikastolek antolatzen dutela jarri badute). Horretarako, esteka hau bidaliko diegu, eskolaz kanpo ikus dezaten nahi izanez gero: https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag&list=PLQ7B3QXOhR_WEVdRu9LqpiQpMQTOraI_S&index=2 (azpidatziak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude).
- ▶ **23. KORRIKA: HARRO HERRI Spota** ikusi eta komentatuko dugu (azpidatziak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude): <https://www.youtube.com/watch?v=V1cEdW5ZyYA>
- ▶ **Solasaldia** egingo dugu. Eskolan adi egon ote diren ikusteko eta solasaldia egiten laguntzeko, pantaila handian galderak eta irudiak ikus ditzakegu². Nahi izanez gero, "txapelketa" ukitua ere eman diezaiokegu: ikasleak binaka jarri, puxtariak banatu... Bestela, Kahoot bidezko txapelketa egin dezakegu³ (Zer dakizu KORRIKAz? A1-A2).



- ▶ Amaitzeko, **KORRIKari lotutako lexikoa ikasteko jolasa** egin dezakezue (ikus 7. or.).

¹ Bideoa: **22. KORRIKA: Hitzekin, baina hitzik gabe! Mila esker, Euskal Herria!**

https://www.youtube.com/watch?v=c3HwYZ_os3o

² Ikusi "**Solasaldirako BADATOR 23. KORRIKA.pdf**", ("odp" dokumentua ere eskura duzue, editagarria).

³ **Zer dakizue KORRIKAz? A1-A2** <https://create.kahoot.it/details/8a12cf8b-fb22-4a1f-930f-b9cefe9d92ec>

JARDUERA OSAGARRIA:

- 1. JARDUERA egin eta gero, **KORRIKari lotutako lexikoa ikasteko jolasa** egin dezakezue. Horretarako, pantaila handian, **“Lexiko berria ikasten” PDFa ireki** behar duzue.

“KORRIKari buruzko LEXIKO BERRIA IKASTEN” JOKOA**Jokoaren helburua**

Testuan agertuko den lexiko berria ikasteko, ETB1eko *Mihiluze* lehiaketa ezaguneko *Tribuaren berbak* jokoaren prozedurari jarraituko diogu. Beraz, jokoaren helburua izango da hitz guztien esanahia jarraian asmatzea.

Jokoaren arauak

- Ikasleak talde txikitan banatuko ditugu.
- “Lexiko berria ikasten” PDFa ordenagailuaren edo telebistaren pantailan jarriko dugu. Jarri dokumentua “aurkezpen” moduan, pantaila osoa bete dezan.
- Klik eginda, hitzak eta esanahiak agertzen diren lehenengo orrira igaroko gara, eta hasiera emango diogu jokoari. Orri horretan, pantailaren ezkerrean, hamaika hitz agertuko zaizkigu euskaraz; eskuinean, aldiz, hitz horiek gaztelaniaz eta frantsesez.
- Lehendabiziko hitza azpimarratuta agertuko zaigu. Lehenengo jokalaria esan beharko du hitz horrek zer esan nahi duen, eskuineko hitzen artean aukera ginez.
- Aukera bakarra izango dute jokalariek hitza asmatzeko. Asmatuz gero, klik eginda hurrengo orrialdera joango gara. Hortxe erantzuna ikusiko dugu, eta hurrengo hitza azpimarratuta agertuko zaigu.
- Hitzak asmatu bitartean, jokalariek beren txandari eutsiko diote; hitzen batekin okertuz gero, aldiz, hasierako pantailara itzuliko gara, eta hurrengo jokalarien txanda izango da.
- Jokalari batzuek, jarraian, hitz guztien esanahiak asmatzen dituztenean, orduan irabaziko dute joko.

Lexiko berria ikasten

KORRIKARI BURUZKO LEXIKOA

Zer esan nahi du...?

**KORRIKARI BURUZKO LEXIKOA**

Lasterketa	MENSAJE; MESSAGE
Arduradun	CARRERA; COURSE
Antolatu	COMITÉ; COMITÉ
Bultzatu	TESTIGO; TEMOIN
Lagundu	RESPONSABLE; RESPONSABLE
Omendu	AYUDAR; AIDER
Lelo	HOMENAJEADO, -A; HONORÉ, -E
Parte hartu	ESLOGAN; SLOGAN
Batzorde	ORGANIZAR; ORGANISER
Lekuko	IMPULSAR; PROMOUVOIR

KORRIKARI BURUZKO LEXIKOA

Lasterketa	MENSAJE; MESSAGE
Arduradun	CARRERA; COURSE
Antolatu	COMITÉ; COMITÉ
Bultzatu	TESTIGO; TEMOIN
Lagundu	RESPONSABLE; RESPONSABLE
Omendu	AYUDAR; AIDER
Lelo	HOMENAJEADO, -A; HONORÉ, -E
Parte hartu	ESLOGAN; SLOGAN
Batzorde	ORGANIZAR; ORGANISER
Lekuko	IMPULSAR; PROMOUVOIR

- **Ariketa ONLINE egiteko, jo hona: KORRIKA LEXIKOA IKASTEN**

<https://korrika.h5p.com/content/1292128922913403897>

2. JARDUERA: KALEAN DA 23. KORRIKA-KANTA!

- ▶ Korrika-kantarik ezagutzen ote duten galdetuko dugu. Ezagutzen badute, kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- ▶ Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa¹ ikusiko dugu eskolan.
- ▶ Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipean agertutako pertsonaz zer dakiten esaten. Kantaren itzulpena 9. orrialdean dago.
- ▶ Biografiak irakurri, eta hutsuneak betetzeko ariketa egingo dute (4. or.).
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUN ZUZENAK:

1. kantaren; 2. zuen; 3. ditu; 4. batzuekin; 5. Filmetarako; 6. onenaren; 7. hasi; 8. hitzak; 9. Ibonek; 10. ditu

- ▶ Kanta berriro entzungo dugu¹ eta, entzun bitartean, irakurri eta kantatzera ere gonbidatuko ditugu (5. or.); ondoren, erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta! Edo errepikak!

Oharra: hiztegitxoan errepikatzen diren hitzak soilik jaso ditugu; beraz, ez dute kanta osoa ulertuko, baina errepikatzen diren pasarteetan jarriko dugu arreta.

KANTARI BURUZKO AZALPENAK: "Ohiko kanta-egituratik kanpora begiratu duen abesti poliedriko bat da honako hau. Pop ukituak, harmonikoak, sinfonikoak, kaotikoak... Abeslari eta musikari bakoitzaren ekarpen bereizgarriak elkartu eta bat egiten dute alaitasunez, dramatismoz eta umorez betetako melodian. Abestiak bere berezitasunez harro dagoen herriari keinu egiten dio. Telesforo Monzonen "euskara plazara, dantzara" eguneratua da, egungo errealitatean euskarak duen tokia errebindikatzen duena."

- ▶ Solasaldia egingo dugu: zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko...

Oharra: nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako Korrika-kantak:
<https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma>

- ▶ **Badok.eus** ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu uena.

¹ Bideoklipa: **HARRO HERRI (23. KORRIKAren abestia eta bideoklipa)**

<https://www.korrika.eus/eu/abestia> eta <https://www.youtube.com/watch?v=wXRJVFng4Ug>

FRANTSESEZ:

23. KORRIKA – HARRO HERRI (COURS, PEUPLE FIER)

**Cours, peuple fier
Cours, peuple fier
Cours, peuple fier
Soyons fières et fiers de ce que nous sommes!**

**Cours, peuple fier
Cours, peuple fier
Cours, peuple fier
Cours vers la place!**

Soyons fières et fiers,
Voici le peuple basque
Ami•e•s de l'euskara
Souffle et sueur

Peuple fier
Sur les réseaux et dans la rue
Le cœur palpitant...
Tik-tak, Tik-tak, tik-tok

D'une bouche à l'autre
D'une langue à l'autre
Uni•e•s avec la terre
Tourner et virer

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Le réseau de l'euskara
Ne tombera pas

D'une bouche à l'autre
D'une langue à l'autre
toute langue s'enrichit
avec celles/ceux qui la parlent

Ku kukulumuxu
Koko kokoriko
Dans un éclat de rire
ou même sans voix

Cours, peuple fier...
(bis)
Cours, peuple fier...
(bis)

Bouches actives
Oreilles réceptives
Main dans la main
Que nos voix éclatent

Prenons une photo
en pleine course ;
Cœur, baiser, irrintzi
Je ferai effet!

D'une bouche à l'autre... (bis)
Ku kukulumuxu... (bis)
D'une bouche à l'autre... (bis)
Ku kukulumuxu... (bis)

Les discussions en ligne
se font sans câlins
Mais à la chaleur des corps
Que de chatouilles!

Ma main
Ta main
Joignons-les
pour qu'elles soient nôtres

Si tu apprends
Rejoins-nous
Jusqu'à se comprendre
Tiens bon

Si nous allons loin pour
apprendre les langues
pourquoi ne pas
parler euskara dans notre pays

Cours, peuple fier...
(bis)
Cours, peuple fier...
(bis)
Cours, peuple fier...
(bis)
Cours, peuple fier...
(bis)

S'ils ne nous donnent pas
raison,
Nous brûlerons leur loi

GAZTELANIAZ:

23. KORRIKA – HARRO HERRI (CORRE, PUEBLO ORGULLOSO)

**Corre, pueblo orgulloso
Corre, pueblo orgulloso
Corre, pueblo orgulloso
¡Aquí estamos!**

**Corre, pueblo orgulloso
Corre, pueblo orgulloso
Corre, pueblo orgulloso
¡A la plaza!**

Enorgullécete pueblo
He aquí la gente
vascoarlante
partidarios/as del euskera
Aliento y sudor

Enorgullécete pueblo
En redes y calles
Corazón palpitante:
Tik-tak, Tik-tak, tik-tok

De lengua en lengua
De habla en habla
Unidos/as a la tierra
Dando vueltas

Ku kukulumuxu
Quiquiriquí
La red del euskera
No caerá

De lengua en lengua
De habla en habla
el idioma es más rico
por sus hablantes

Ku kukulumuxu
Quiquiriquí
A gritos
o afónicos/as

Corre, pueblo orgulloso
... (bis)
Corre, pueblo orgulloso
... (bis)

Bocas activas
Oídos receptivos
Juntos/as de la mano
Que estallen las gargantas

Saca una foto
en plena carrera
Corazón, beso, grito
¡Soy influyente!

De lengua en lengua...
(bis)
Ku kukulumuxu... (bis)
De lengua en lengua...
(bis)
Ku kukulumuxu... (bis)

Chateando online
no hay roce
Al calor de los cuerpos
¡iqué a gusto!

Mi mano
Tu mano
Juntémoslas
Para hacer algo nuestro

Si estás aprendiendo
Únetenos
Hasta entendernos
Tenazmente

Si a aprender idiomas
vamos fuera
Por qué no hablar en
euskera
En nuestro pueblo

Corre, pueblo orgulloso
... (bis)
Corre, pueblo orgulloso
... (bis)
Corre, pueblo orgulloso
... (bis)
Corre, pueblo orgulloso
... (bis)

Si no nos dan
la razón,
Calcinaremos
su ley



FITXA TEKNIKOA:

Zuzendari artistikoa eta musikaria: *Mursegó* (Maite Arroitauregi Aranburu).

Letra: Amaia Astobiza

Grabazioak: Oihan Lizaso (Noisestudioa)

Parte hartu duten talde eta musikariak:

Ibon Rg, Ibil Bedi, Kau Kori Kura, Aida Torres, Marié Bidart, Asier Ituarte, Garazi Zabaleta, Urretabizkaia Txaranga